



Praktikak Bilboko Hezkuntza Fakultatearen Araudia

Haur Hezkuntzako Gradua
Lehen Hezkuntzako Gradua
Gizarte Hezkuntzako Gradua

Eskola Batzarrak onartua 2018ko urtarrilaren 24ean

AURKIBIDEA

AZALPENA.....	3
XEDAPEN OROKORRAK.....	3
1. Artikulua: APLIKAZIO EREMUA.....	3
2. Artikulua: PRAKTIKEN IZAERA.....	4
3. Artikulua: PLAZEN ESKAINTZA ETA MATRIKULA.....	7
4. Artikulua: TUTORETZA.....	7
5. Artikulua: UPV/EHUko IRAKASLE-TUTOREAREN ESKUBIDE ETA ZEREGINAK..	7
6. Artikulua: KANPOKO TUTOREAREN ESKUBIDE ETA ZEREGINAK.....	8
7. Artikulua: IKASLEAREN ESKUBIDE ETA ZEREGINAK.....	9
8. Artikulua: KREDITUAK TRASFERITZEA ETA AITORTZEA.....	10
9. Artikulua: SALBUESPENAK.....	10
10. Artikulua: EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA.....	11
AZKEN XEDAPENAK.....	12

AZALPENA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzkoak, arreta berezia jarri dio ikasleek kanpo praktikak egiteari, (12.2 art); Horrez gainera, graduaren bigarren zatian eskaintzea gomendatzen du (12.6 art).

Uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak ikasle unibertsitarioen kanpo praktikak arautzen dituenak, praktika horien izaera formatiboa azpimarratzen du, lanbiderako oinarrizko gaitasunak lantzeko balioa onartuz. Praktiken izaera hezigarriak egiten du ezinezko, praktiketan dagoen bitartean, ikasleak harreman laborala izatea edo lan harremanak izan ditzakeen betebeharrak burutzea.

2012ko urriaren 16ko ebazpenean (azaroaren 12ko EHAA), Irakasle Kanpoko Praktika Akademikoen Araudia dator, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluan onartua. Araudiaren helburu nagusia da unibertsitateko ikasleek prestakuntza osoago bat lortzea ikasten ari diren bitartean egiten dituzten praktika hauen bidez, baina, horretaz gain, lagundu nahi zaie administrazio publikoetan eta enpresa pribatuetan sartzen, eta bide horretan ugaritu lana aurkitzeko aukerak; haien ekimena, sormena eta berritzeko gaitasuna sustatu nahi dira, gure konpromisoa jakintzaren gizartean oinarritutako transformazio ekonomikoan parte hartzeko.

Araudi honetan oinarrizkoak dira UPV/EHU indarrean dauden Kudeaketa Araudia eta Ebaluaziorako Araudia.

Graduak hiru praktika ditu derrigorrezkoak, bakoitzean kredituak, egutegia eta zereginak, besteak beste, zehaztuta daude dagokion GIDAn.

Praktikak ikasgai derrigorrezkoa izanik, lehen eta bigarren zikloko gradu-ikasketak kudeatzeko Araudiak, 71. artikuluan honakoa xedatzen du: "Ikasle bakoitzak, praktikak egin bitartean, Eskola Aseguruaren estaldura izango du. 2017/2018 urterarte gehienez 28 urte dituen arte da. Adin horretatik aurrera, ezbeharretarako poliza kolektiboa sinatu beharko du. Egokia balitz, aipatutako adina bete aurretik sinatu lezake, osagarri gisa".

Testuan zehar kanpoko tutore hitza erabiltzen da UPV/EHUko beste araudi eta plataforma digitaletan erabiltzen den kanpoko tutorea izendatzeko.

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua: APLIKAZIO EREMUA

- 1.1. Arautegi honek Bilboko Hezkuntza Fakultateko Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako gradu etako praktikak definitu, egin, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.
- 1.2. Arautegi honen edukia, besteak beste, ikasle ebaluazio sistemaren, kredituen aitortzen eta transferentziaren eta ikasle mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

2. Artikulua: PRAKTIKEN IZAERA

- 2.1. UPV/EHUko araudiak praktikak bere 2. artikuluan definitzen ditu: kanpo-praktika akademikoak ikasleek gauzatzen eta Unibertsitateak gainbegiratzeko dituzten prestakuntza-jarduerak dira, eta haien helburua ikasleei prestakuntza akademikoan jaso dituzten ezagutzak garatzeko eta osatzeko bidean laguntzea da, jarduera profesionalerako prestatzen, lan-merkatuan egokitzen eta ekimenerako gaitasuna sustatzen lagunduko dieten gaitasunez ahalik eta errazkien jabe daitezen.
- 2.2. Praktiken arduraduna Dekanoa, edo horretarako izendatu den dekanordea, da. Arduraduna da praktikak antolatu, koordinatu eta kudeatuko dituen, eta kasua denean, Praktiketarako Batzordeen laguntza izango du.
- 2.3. Bilboko Hezkuntza Fakultatearen practicum indarrean dauden akordioen arabera horretarako aukeratuak izan diren ikastetxe edo entitateetan aurrera eramaten diren hiru enbor- eta derrigorrezko irakasgaiz osatzen da. Praktika curricular hauen luzapena eta ordutegia RD. 1393/2007 12.6 artikuluan arautzen denaren arabera, derrigorrezko irakasgai modura dagokion irakaskuntza planak ezartzen dituenak dira.
- 2.4. Ikasleak praktika-egonaldia Bilboko Hezkuntza Fakultateak esleitutako ikastetxe edo erakundean egingo du. Egonaldian zentroan ezartzen zaion egutegia eta ordutegia errespetatuko ditu. Zentroaren esleipena matrikula egiterako momentuan dagoen eskaintza ikusita, ikasleak egindako aukeraketaren arabera izango da. Ikasleak espediente akademikoaren arabera iritsiko da eskaintzara. Ikasleak ez du ikastetxe edo zentroekin aldezturik kontakturik egin behar Fakultatearentzako plaza gehiago bilatzeko asmoz, izan ere antolakuntzaren ardura Bilboko Hezkuntza Fakultateko Dekanoaren edo Dekanordearen ardura delako.
- 2.5. Praktiken Zuzendariordetzak antolatutako jardunaldietan eta prestakuntza-mintegietan parte hartuko du ikasleak, baita Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle-tutoreak programatutako mintegietan ere. Halaber, memoria osatuko du, unibertsitateko tutoreak markatutako ildoak errespetatuz.
- 2.6. Praktiketarako asistentzia derrigorrezkoa da. Edozein ausentzia Zertifikatu bitartez komunikatu beharko zaio, bai zentroari eta baita Fakultateko tutoreari ere. Justifikatzeko arrazoiak UPV/EHU ikaslearen arautegi orokorrean agertzen direnak dira. Edozein kasutan argi eduki behar da hurrengoa: Falta modura kontsideratuko da sesio batetako (goiz ala arratsaldeko) ausentzia. Honela egun oso bateko ausentzia bi falta modura hartuko da. Justifikatu gabeko bi ausentzia suspentso kalifikazioa inplikatzeko dute. 4 falta justifikatu baino gehiago eginez gero sesio horiek erreperatu beharko dira galdu egin diren praktikaldiaren egutegiaren barruan.

- 2.7. Practicum egonaldia, formakuntza sesioak eta zentroetako egonaldia barne, Fakultateak urtero argitaratuko dituen egutegietan arautuko dira.
- 2.8. Gradua gaztelaniaz edo hirueledun taldean egiten ari diren ikasleek aukera izango dute Practicum I, II eta III euskaraz egiteko (Ikus ikaslearen gida). Horretarako, B2 edo horren baliokidea den maila egiaztatu beharko dute ziurtagiria dagokion datan practicum dekanordearen aurrean aurkeztuz. Fakultateak ez du inolako probarik egingo hizkuntza gaitasuna egiaztatzeke, ikaslearen erantzukizuna izango baita gaitasun hori egiaztatzea. Horretarako Dekanordetzatik eskuratu dezakeen hurrengo urtean euskaraz egiteko asmoa adierazten duen txantiloia beteko du. Urte guztietako eskakizunak informazio eta dokumentazio osoarekin lagunduko dira. Edozein kasutan B2 euskara mailaren ziurtagiria matrikula osatu aurretik helaraziko da. Horrela ez balitz nahiz eta ikasleak euskarazko zentroa aukeratuko balu ofizioz gaztelaniako batetara bideratua izango da.
- 2.9. Hizkuntzaz aldatzeko eskakizuna egiten duen ikasleak, onartuko balitzaio, aldaketa horrek dituen eraginak onartzen ditu (Zentro, tutore, etb.-ko aldaketak barne). Hizkuntza gaitasuna egokiro ziurtatu ez duen ikaslea euskarazko talde batean matrikula egingo balu eta euskarazko zentroa aukeratu balu ofizioz gaztelaniazko zentro batetan esleituko da.
- 2.10. Praktiak UPV/EHUtik kanpo (SICUE/SENECA, etab.) egiteko asmoa duten ikasleek horretarako indarrean dagoen eskaintzaren menpe geratuko dira. (Ikus Nazioarteko Harremanak)
- 2.11. Garapenerako Lankidetzan praktikak egin nahi dituzten ikasleek, Lankidetzaren Bulegoak ezarritako baldintzak eta arauak beteko dituzte. (Ikus beren beregiko Araudia)
- 2.12. Praktiketako araudia betetzearen erantzukizuna ikaslearena da, eta ez da ikasle eta tutorearen arteko hitzarmen individualik onartuko, tutorea UPV/EHUkoa zein erakundekoa edo ikastetxekoa izan. Ikasleak lan-hitzarmenik daukan zentro batean ezin izango da practicum egonaldia bideratu.
- 2.13. Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza izaera dela eta, haien bururatzeko prozesuan inolaz ere ez da lan-harreman bati dagozkion betebeharrak ondorioztatu ahal izango, eta haren edukian inolaz ere ez da lanpostu bati dagozkion betebeharrak ordezka litzakeen egitekorik onartuko. Ikasleak, honelako ezer gertatu balitz, praktiketako zuzendaritzari komunikatu beharko dio.
- 2.14. Era berean, ikasketak bukatutakoan ikaslea zentroko langile bilakatzen bada, praktiketaren eginiko denbora ez da antzinasunari begira aintzat hartu ahal izango eta langile berria ez da horregatik proba-epea igaro beharrik gabe gertatuko, baldin eta aplikatu beharreko lan-hitzarmenean ez bada horrelakorik zehazten. Lan-hitzarmenaren epea ezin izango da inolaz praktika egonaldiarekin gainezarri.

3. Artikulua: PLAZEN ESKAINTZA ETA MATRIKULA

- 3.1. Praktiketako Dekanordeak ekainean argitaratzen ditu hurrengo ikasturterako plazak. Ikaslea matrikulatzeko deitua denean, praktika-ikasgaien matrikulatzeaz gainera, praktikak burutzeko erakundea edo ikastetxea aukeratuko du.
- 3.2. Practicum II eta III-an irailean matrikulatzen den ikasleagoa (mugikortasun programetako ikasleak ezezik) urriaren 1ean izango du epemuga zentroa aukeratzeko. Data horretatik aurrera ofizioz zentro bat esleituko zaio. Practicum I-eko ikasleagoa matrikularen egun berean aukeratu beharko du zentroa edo ofizioz bat esleituko zaio.
- 3.3. Ikasleak hiru praktikak egingo ditu bi edo hiru zentrotan, eta bere ardura hori berrmatzea da.
Erakundea edo ikastetxea aukeratzeko orduan, ikasleak hurrengo baldintzak izango ditu:
 - a) Gizarte Hezkuntza graduan: gutxienez bi esparrutan egin behar dira praktikak. PII eta PIII erakunde berean egingo ditu. P I esparru edo erakunde desberdinean egingo du.
 - b) Haur Hezkuntza graduan: praktikak gutxienez eskola desberdin bitan egingo dira. PIII-a 3-6 zikloan burutu beharko du.
 - c) Lehen Hezkuntza graduan: Gutxienez eskola desberdin bitan egingo dira praktikak, eta gutxienez ziklo desberdin bitan.
 - d) Gradu bakoitzari hiru praktika-epe egokitzen zaizkio. Hauetako bakoitzaren epeak, egutegia, betebeharrak eta bestelakoak araudi honetan eta Gradu bakoitzaren GIDAN arautzen dira.
- 3.4. Matrikulatu aurretik Bilboko Hezkuntza Fakultateko web orrian hurrengo ikasturteko praktiketako egutegia argitaratuta izango da. Praktiketako egonaldia hasi aurretik ikasleak beren beregiko formazioa izango dute. Egonaldiarekin batera irakasle tutorek deituko dituen mintegiak ere izango ditu. Ikaslearen zeregina eta erantzukizuna aurretiko formazio saioetara zein mintegietara joatea da. (Ikus "Ebaluazioa").
- 3.5. Esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako dekanordetzan horren berri eman beharko du, idatziz.

4. Artikulua: TUTORETZA

- 4.1. Matrikula epea amaitu ostean, abian jarriko da tutorea esleitzeko prozesua. Praktiketako bulegotik Sail bakoitzari bidaliko zaio ikasturte horretan esleituko zaizkion ikasle zerrendak, sailak berak tutoreak izenda ditzan. Ikasle bakoitzari Informazio hori GAUR plataformaren bitartez jakinaraziko zaio.
- 4.2. Irakasle-tutoreak GAUR sistemaren bitartez jasoko ditu: praktketan esleitu zaizkion ikasleen zerrenda, kanpoko tutoreen datuak, informazio gehigarria eta prozesuan erabiliko diren dokumentuak. GAUR sistemaren datu basean agertuko ez balira, tutoreak altan emango ditu kanpoko tutorearen datuak eta ikaslearen datuekin erlazionatuko dira, hauek ere plataforman sartzea baimenduz.
- 4.3. Irakasle-tutorearen ardura izango da ikasleari practicum bakoitzaren ezaugarriak azaltzea, praktika-aldirako orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla bermatzea, baita jarraipena egin eta hari buruzko ebaluazio-txostena betetzea ere. Txosten hori GAUR plataforman utziko da. Tutoreek practicumaren dokumentu guztiak GAURen bete eta gordeko dituzte.
- 4.4. Ikasle bakoitzak tutoretza bikoitza izango du: alde batetik UPV/EHUko irakaslearena (hemendik aurrera tutore); eta bestetik erakundeeko gizarte hezitzailea edo ikastetxeko maisu-maistrarena (UPV/EHU-ko beste araudietan instruktoare eta araudi honetan hemendik aurrera kanpoko tutore).

5. Artikulua: UPV/EHUko Irakasle-tutorearen eskubide eta zereginak

Praktikak enborrezko ikasgaiak diren neurrian, tutoreak ikasgai horietako ikasleen erantzukizuna, egutegian ezarrita dauden aurre-formazioa eskaintzea, eta mintegiak bideratzearen ardura hartu beharko du.

Egokitzen zaizkion ikasleen praktikak burutzeko beharrezko laguntza ematea, dokumentazioa azaltzea, zereginak finkatzea, jarraibide egokiak ematea eta ikastetxean egin beharreko lana bideratzea. GAUR plataformako praktiken atala azaltzea, eta ikasleari dagokiona bete egiten dela bermatzea.

Praktiken jarraipena egitea, ikastetxeko edo erakundeetako tutoreekin koordinatuz, ikasleria bete behar dituen zereginetan gidatzea.

Praktikak ebaluatzea: Ikasleak aurkeztuko duen txostena betetzeko behar diren informazioa eta azalpenak ematea eta, ezarritako jarraibideen arabera, ikasleak aurkeztuko duen memoria baloratu eta kalifikatzea. Ikasgaia "ebaluazioa eta kalifikazioa" atalaren arabera kalifikatuko du.

Practicumaren dekanordeak deitutako bileretara joatea.

UPV/EHU-ko plataforma digitaletara Kanpoko tutoreaen sarrera baimendu, beharrezkoa balitz altan emanaz.

Ikasgaiari dagokion inkesta GAURen betetzea eta praktikak hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

6. Artikulua: Kanpoko tutorearen eskubide eta zereginak

Praktika curricularrak arautzen dituen dokumentaziora sarrera izango du, horretarako GAUR sisteman izendatuta egongo da. Gaur sistema erabiliko du bere zereginak bideratzeko eta dokumentazioa zein informazioa zuzenean eskuratzeko. Praktiketako kanpoko tutorea izanaren ziurtagiria ere Gaur-en bitartez jasoko du.

Zentroaren eta UPV/EHU-ko arduradunen elkarlana errazteko asmoz bi erakundeen koordinazioan lagunduko du

Ikasleari harrera egingo dio, eta bertan gauzatuko dituen jarduerak antolatu eta azalduko ditu.

Ikaslea gidatuko du, burutuko dituen jarduerak gainbegiratzuz, eta izan ditzakeen arazoak konpontzen lagunduz.

Derrigorrezko praktiketarako egokian izan daitezkeen formakuntzarako ekintzak proposatzea.

Praktiketan gorabeherarik gertatuz gero, UPV/EHUko Praktiketako irakasle-tutoreari eta bere ikastetxe edo erakundeko koordinatzaileari horren berri emango dio.

Ikaslearen praktikak ebaluatuko ditu, alde onak zein hobetzekoak agertuz.

Praktikei buruzko inkesta erantzungo du GAURen, praktikak hobetzeko iradokizunak eginez.

7. Artikulua: Ikaslearen eskubide eta zereginak

Curriculumaren araberako kanpoko praktiken kasuan, haiei loturiko ikasgaiari matrikulaturik egotea, dagokion ikasketari Planaren arabera.

Praktikak bideratuko diren enpresa, instituzio edo erakunde publiko edo pribatuarekin, edo Unibertsitatearekin berarekin, inolako kontratu-loturarik ez edukitzea, Akademia Antolakuntzako erretoreordeak zehaztuko dituen organoek horretarako baimena berariaz ematen duten kasuetan izan ezik.

Practicumaren araudia ezagutzea eta betetzea, eta bertan onartutako prozedurak, datak eta egutegiak bete eta errespetatzea.

Hitzarturiko egunean hastea lanean erakundean edo eskolan; ordutegia beteko du, eta erakundearen jarduerarako, segurtasunerako eta lan-arriskuen prebentziorako arauak errespetatuko ditu. Horrela ezarrita dauden kasuetan ikaslearen ardura izango da eskatzen zaion Natura Sexualeko Delitu Ziurtagiria dagokion lekuan eta eran egokiro aurkeztea.

Praktika-aldi bakoitzean, Unibertsitateko tutorearekin harremanetan egon behar dute, eta haietan sor litekeen gorabeheraren berri emango diote eta ikasgaiari programatutako mintegi, jardunaldi eta jardueretan parte hartuko dute. Saio horietara joatea derrigorrezkoa da (Ikus "Ebaluazioa" atala). Tutoreak ezarritako epe eta eran, eskatzen zaizkion dokumentuak, txostenak eta amaierako memoria aurkeztu egingo ditu.

Praktika-aldian garatutako jardunari lotuta, lanbideari dagokion kode deontologikoan jasota dauden konfidentziasuna eta gainerako jarraibide etikoak errespetatzea ezinbestekoa da.

Oharra1: ikaslearen beraren erantzukizuna izango da araudia betetzea; ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

Oharra2: Praktika egonaldian dagoen Bilboko Hezkuntza Fakultateko ikaslea ez da zentroko langilea, beraz ez du zentro horretan greba egiteko eskubiderik. Ikasleagoa zentro edo entitate horietan data horiek nola eramango dituen aurrera zentro horietako zuzendaritzaren ardura izango da. Erabakia beraz zentroarena izango da eta ez ikaslearena. Horrelako kasuetan asistentzia egunero asistentzia kontrolatzen den kasuetan zentroek justifikatu beharko dituzte faltak edo ausentziak.

8. Artikulua: KREDITUAK TRANSFERITZEA ETA AITORTZEA

8.1. Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuko 6. artikuluan emandako definizioen arabera: Kredituak aitortzea honako hau da: ikasle bat matrikulatzen denean, ikasle horrek UPV/EHU edo beste unibertsitate batean, ikasketa ofizialen batean lortutako kredituak onartzea eta aintzat hartzea titulua lortzeko.

8.2. Praktiketako kredituen aitorpenerako aukerak publikoak dira eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko web orrian aurkituko dira. Fakultate Batzarrari dagokio, edo bere izenean jardungo duenari, aitorten taulen kudeaketa egitea, gaurkotzea eta argitaratzea, eta baita aitortpena eskatzen duen ikasleari erantzutea ere.

8.3. Kredituen aitortpena eskatzen den kasuan, ebazpenarekin batera, kasua denean, ikasleak balizko helegiteak egiteko prozedura ere jasoko du.

9. Artikulua: SALBUESPENAK

Practicuma enborreko irakasgaia da eta, hortaz, errespetatu beharreko aurrez ezarritako prozedura dauka.

Ikasleak aurrez adierazitako praktika-zentroan burutuko du bere egonaldia. Salbuespena izango da, eta dagokion dokumentazioaren bidez justifikatuta egon beharko da, zentroa aldatzeko eskaria. Eskariak idatziz egingo dira eta idatziz erantzun. Ebazpena Practicum-eko dekanordeak egingo du

Salbuespenezko kasu modura izendatuak izateko eskariak idazkaritzan aurkeztuko dira fakultateko idazkaritzako webean eskegita dagoen ohiko inprimakia beteta eta dokumentazio egokiaz justifikatuta. Eskakizunak aurkezteko epea Fakultateak zabalduko du. Eskakizunak idatziz egingo eta erantzungo dira. Eskakizunen ebazpena Fakultateko Dekanordetzak egingo du.

Salbuespenezko kasu modura onartua izateko arrazoiak hauek izango dira: Mugikortasun programan parte hartzea, amatasuna, goi mailako kirolaria izatea, istripua edo gaixotasuna dira onartu daitezkeen kasuak, beti ere ondo justifikatuta badaude. Eskariak Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorretako edozeinetan aurkeztu beharko dira, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 38.4 artikuluan jasotako edozein bitartekotan (azaroaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).

10. Artikulua: EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

10.1. Praktika-aldia amaitu ondoren emango den kalifikazioak ikasleek prestakuntza fase horretan eskuratutako kompetentziak islatuko ditu. Horretarako GAUR plataforman daude eskuragai txostenak betetzeko dokumentuak. Ebaluazioa prozesu partekatua delako, UPV/EHUko tutoreak, kanpoko tutoreak eta ikasleak, bakoitzak berari dagokion ebaluazio atala dagokion formatuan beteko du dagokion datan horretarako bereziki deitua izan gabe.

10.2. Ikaslearen kalifikazioa irakasle tutorearen eginkizuna da, GAUREn ikasle bakoitzari dagokion nota horretarako onartutako datan argitaratu beharko du.

Ikaslearen praktikaldia bukatutakoan, erakundeko kanpoko tutorearen ebaluazio-dokumentua eta ikaslearen txostenak ikusita, irakasle-tutoreak kalifikazioa ebatsiko du. Nahitaezkoa da ebaluazio atal guztiak gaindituta izatea ikasgaia gainditzeko.

10.3. Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kualitatiboa ere adieraziko da:

- Ez aurkeztua (EA)
- 0 – 4.9: Gutxiegi (G)
- 5.0 – 6.9: Nahikoa (N)
- 7.0 – 8.9: Oso ongi (OO)
- 9.0 - 10: Bikain (B)

Praktiken azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegia jarraituz egingo dira. Ebazpen horren kontra jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da UPV/EHUko Errektoregoaren aurrean.

Horrez gain, hurrengo oharrak kontutan hartzekoak dira:

- 1- Nahitaezkoa da ebaluazio atal guztiak gaindituta izatea ikasgaia gainditzeko.
- 2- Praktiketako alde guztiak gainditu ezik ohiko deialdian emaitza gutxiegi izango da. Eta zenbakizko emaitza ez gainditutako atalaren, edo atal hauen emaitzen batezbestekoa, izango da (beti ere 5 baino gutxiago). Egonaldia gaindituz gero, baina praktiketako azken txostena, memoria edo lan idatzia, dagokion eran edo/eta datan aurkezten ez denean, ohiko deialdiko azken nota "ez aurkeztua" izango da. Ikasgaia urte akademiko horretako ez-ohiko deialdian gainditzen ez bada ikaslea praktika ikasgai hori osorik errepikatu beharko du eta horretarako berriz matrikulatu beharko da.
- 3- Ikasgaiaren gutxiegi lortzekotan (nahiz eta bakarrik atalen batean bada ere) praktika ikasgaia osorik errepikatu beharko da eta horretarako berriz matrikulatu beharko da.

10.4. Practicumaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraituz itxi beharko da, eta irakasle-tutorearen ardura izango da akta behar bezala betetzea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzea.

10.5. Artikulu honetan zehaztutako gainontzeko egoera guztietarako Praktiketako Gidaren Ebaluazioan adierazitakoa beteko da.

Oharra: Ikastetxeko egonaldia egiten den ikasturtean baino ez da izango baliagarria. Txostena gaintu ezean edo adierazitako egunetan aurkeztu ezean, praktikak beraien osotasunean berriro egin beharko dira.

1. AZKEN XEDAPENAK

Aurreko artikuluetan aurreikusi ez diren egoera bereziak Dekanoak, edo bere izenean arituko denak ebatziko ditu interesdunak agiriz hornitutako eskabide arrazoitua aurkeztu ondoren.

Araudi hau Eskola Batzarrean onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.